



PALA - EMAKUMEA PILOTARI TXAPELKETA

Pagola eta Mendizabal txapeldun

Emakumea Pilotari pala txapelketako finalak jokatu ziren atzo. Bestalde, umeen arteko txapelketa ere izan zen jokoan. Gaur, Napar Txapelketa jokatuko da.

PAGOLA hernaniarrak, Mendizabalekin batean, irabazi zuen atzo Emakumea Pilotari pala txapelketa, 1go mailan. Bigarren mailako partidua bukatu gabe zegoen oraindik, Kronikako erredakzioa ixtean. Umeen arteko txapelketan berriz, Garazi Urdangarin hernaniarra bikain aritu da, eta 2garren postua lortu du. Gaur, beste 3 hernaniar ariko dira lehian, Euskal Herriko palista onenen arteko Napar Txapelketan./3

ARRAUNA - GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN SARIA



«Nesken emaitza izan da bereziki ona»

Gipuzkoako Federazioaren Saria jokatu zen atzo Elorrabin. 32 batel atera ziren guztira, 3 kategoriatan, eta Hernaniko neskak izan ziren garaile. «Hasiera polita», Xabi Gurrutxaga entrenatzailearen hitzetan.

NESKAK bereziki, primeran aritu ziren atzokoan. «Duela bi aste, Tolosan, irabazi egin zuten, eta orain berriro irabazi dute, denbora hobetuta gainera», azaldu dio Kronikari Xabi Gurrutxaga entrenatzaileak.

Infantil eta kadete mailako neskek osatutako A batelak, lehenengo postua lortu zuen atzo Elorrabin, 04:35,74 denborarekin. B eta C batelak berriz, 4garren (04:50,25) eta 6garren (05:00,83) postuan iritsi ziren.

Mutiletan, infantilek ere lan polita egin zuten, eta 2garren postua lortu zuten, 04:31,78 denborarekin. Kadete mailan berriz, A taldeak 3garren postua lortu zuen (05:34,75), eta B taldeak 10garrena (06:06,00).

«Estropada polita atera» zela aipatu zuen Gurrutxagak, eta «hasiera polita» eman diotela onartu zuen. «Oso gustora gaude; hasiera polita eman diogu eta denak hobetzen ari dira». II

❖ TXISTULARI TALDEA

Kontzertua gaur, arkupeetan

'Hernani' Musika Eskolako txistulari taldeak Gabonetako kontzertua emango du gaur, eguerdiko 12:30etatik aurrera, udaletxeko arkupeetan. /2

❖ KRONIKA

Gabonetako saskiak jasotzeko epea, urtarilaren 9ra arte

Zozketatu dira Hernaniko Kronika eta Dobera Euskara Elkarteko Gabonetako 5 saskiak. Irabazleek urtarilaren 9ra arteko epea dute, errifak Kronikan entregatzeko. Irabazleak agertzen ez badira, berriro egingo da zozketa. /6

❖ DOBERA ELKARTEA

Doberako loterian tokatu egin da

Doberako loterian jarritakoa tokatu da aurtan. Kobratzeko epea urtarilaren 7tik martxoaren 22ra artekoa izango da, Doberan bertan. II

GAUR KRONIKAN

LABURRAK /2

Kontzertuak, gaur: /2

Fotonotiziak: Osiñaga eta Gazte Txokoa /2

Kirolak: erremontea, futbola... /3

ESKERTZA /3

Agenda: /7

Olak elkartea: ikastaroa. /8

Aldabe farmazia: gauetarako farmazia berria. /8

EGIPTO Urtarrilaren 5etik 12ra Madrilik hegaldia: 4 gau Nilo pertsiu osoan + 3 gau B Cairu pertsiu orotan	399 ^{'00} €
TUNEZ Urtarrilaren 7tik 14ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 5* Hotelean TI	412 ^{'00} €
LANZAROTE Urtarrilaren 7tik 14ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean TI	534 ^{'00} €
RIVIERA MAYA Urtarrilaren 13tik 20ra Madrilik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean TI	895 ^{'00} €
MEDITERRANEOAN KRUZEROA Apirilaren 7tik 13ra Bartzelona - Niza - Savona - Florentzia/Pisa - Erroma, 6 gau pertsiu osoan	363 ^{'00} €

AJURRA
GEHAGO ERE:

www.bidaibila.com

Cofre **VIP**EZ DAKIZULA ZER OPARITU GABONETAN ?
Begara ze aukera blkaina !

GABONETAKO ZOZKETA

Ekami zuen marmazkiak gure bulegora eta parte hartu
PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan.

BALDINTZAK

Gola: "BIDAIAK" / Adina: 2-11 URTE / EPEA: urtarilaren 4a baino lehen
Zozketa eguna: urtarilaren 4an gure bulegoan,
amatsaldeko seietan.

SARIA:

Apirilaren 1etik 7ra
Port-Aventuran 6 gaueko egonaldia
2 heldu eta 2 umeentzako

HERNANI
BIDAIAKUrtaria 6
943 33 00 49
hernani@goelne.es

www.hernanibidaiaak.com

MUSIKA ESKOLAKO TXISTULARI TALDEA - GABONETAKO KONTZERTUA

10 txistu doinuren ohiartzuna entzungo da gaur, arkupeetan

'Hernani' Musika Eskolako txistulari taldeak kontzertua emango du gaur, 12:30etan, udaletxeko arkupeetan. 14 txistulari eta xirularru bat entzungo dira.

MUSIKA Eskolako ikasleak igandero ateratzen dira herriko kaleetan barrena jotzera. Gaurkoan, urteko azken igandea honetan, txistulari taldearen txanda izango da. 14 txistularik osatutako taldeak, Iñaki Egurenen zuzendaritzapean, 10 pieza joko ditu; txistu errepertorio klasikoko doinuak batzuk, eta Gabon kantak beste batzuk. Horietako batean, Xirularrua (gaitaren familiako tresna) entzuteko aukera ere izango da.

Kontzertua eguerdiko 12:30etan hasiko da, udaletxeko arkupeetan.

Klasikoak eta Gabonetakoak Kontzertuaren lehenengo zatia txistu errepertorio klasikoko piezek osatuko dute.

Bigarren zatian berriz, Gabon doinuak entzuteko aukera izango da. Horietako batzuk bertakoak izango dira, ezagunak. Baina Italiako doinu sorta bat ere joko dute, xirularruak lagunduta. ■

EGITARAUA

- Arizkongo ttun-ttuna.
- Monzonen minuetoa.
- Vivace.
 - Bakarlariak: Idoia Ansorena eta Ander Arandia.
- Mandazainak.
- Fandangoa eta arin-arina.
- Eguberri ezti.
- Gabon eguna.
- Belengo portalian.
- Tre Canzoni di Natale.
 - Xirularrua: Aitor Aiestaran.
- Hator, hator.

MUSIKA ESKOLAKO ABESBATZA - IPUIN MUSIKATUAK

Kantatuz kontatu bi ipuin

Antzerkia, txotxongiloak eta musika elkartu dituen ikuskizuna emango du 'Hernani' Musika Eskolako abesbatzak, gaur, 18:30etan Tolosan.

IPUINAK kantatuz ere kontatu daitezke. Gaur arratsaldeko 18:30etan, Tolosako Topic zentroan, ikuskizun berezia izango da, antzerkia, txotxongiloak eta musika elkartu dituen. 'Hernani' Musika Eskolako abesbatzak parte hartuko du ikuskizun horretan, beste hainbat abesbatza eta musikarirekin batean.

Bi ipuin

Ikuskizunean bi ipuin kontatuko dira, biak, David Azur-

zak konposatuak eta Joxemari Iturralde idatziak.

Abesbatza hernaniarrak bigarren ipuinaren kontakizunean hartuko du parte; *Hurkus errementaria* izenekoan. Errementari bakarti bat da Hurkus, zatar xamarra, baina bihotz onekoa. Herrian zabaldu da gaiztoa dela, eta Satane hori horrela ote den jakiteko, infernura eramango duen deabrua bidaltzen dio Hurkusi.

Lehenengo ipuina *Erlauntzaren sekretua* izango da. Er-

leen jakinduriari esker lanak ezinhobeto egiten dituzten bi baserritarren istorioa kontatzen da. Hirugarren baserritar batek, inbidiak jota, guztia zapuztu nahiko du.

Sarrerak, Topic-en

Helduek 7 euro ordaindu behar dituzte, eta haurrek, 4 (familia ugariak deskontuak dituzte). Sarrerak salgai daude Tolosako Topic zentroan edo www.topictolosa.com webgunean. ■

❖ UDALTZAINGOA

Liztor asiaticoen kabiak kentzeari utzi diote, arriskurik ez dagoelako

Hernaniko Udaltzaingoak jakinarazi du liztor asiaticoen kabiak kentzeari utzi ziotela abenduaren 12an, dagoeneko arriskurik ez dagoelako. Izan ere, kabiak hutsik daude, eta liztorrek ez dituzte kabi zaharrak berrerabiltzen. Hala ere, Udaltzaingoak lanean jarraitzen du datuak biltzeko. Horrela, kabien kokapen mapa egiten ari dira, datorren urteko kokapenak aurreikusteko. ■

❖ GOIZ EGUZKI

Ordutegi berezia bihar, eta baileia, etzi

Goiz Eguzki jubilatutako etxea arratsaldeko 15:00etatik 18:30etara bitartean egongo da irekita, bihar. Asteartean berriz, 17:30etan irekiko da, eta baileia izango da. ■

❖ IKATZA LIBURUGUNEA - KARBONERA

Urte zahar gaueko festa izango da

Zapa kaleko Karbonera etxean urte zahar gaueko festa egingo da bihar. Mozorroak, DJak eta primerako giroa izango direla ziurtatu dute, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte ondo pasatzera. ■

◆ TXANTXANGORRI - MUS TXAPELKETA

Izen-ematea zabalik, urtarilaren 24ra arte

Txantxangorri elkarteak urteroko Mus Txapelketa antolatu du. Bikoteek izena eman dezakete, elkartearen urtarilaren 24ra arte. ■

❖ HERNANIKO PARROKIARTEKO PASTORAL KONTSEILUA

Ekonomia zailtasunei aurre egiteko, zerbitzuengatik donatiboa eskatuko da

Hernaniko Parrokiarteko Pastoral Kontseiluak jakinarazi du «ohiko gastuei aurre egiteko zailtasunak» dituztela, eta ondorioz, «dirua lortzeko beste bide batzuk asmatu behar» izan dituztela. Era berean, gogorarazi dute «kristau elkartea bizirik eta jardunean mantentzea eliztar guztion erantzukizuna dela». Horregatik Parrokietako zerbitzuengatik donatiboak ordaintzeko eskatuko dute 2013an, eta ezin duenak borondatezko donatiboa eman ahal izango du. Prezioak, ondorengoak: ezkontzak, 150 euro; hiletak, 50; bataioak, lehenengo jaunartzeak eta sendotzak 30 euro; katekesia 20 euro + 10 euro (liburua); hildakoen mezak 10 euro; eta ziurtagiriak, 5 euro. ■



❖ OSIÑAGAKO MUS TXAPELKETA

Etxeberria bikotea garaile; Mari Karmen Zeberio sariduna. Osiñagako Mus Txapelketa jokatu zen lehengo igandean, Elorrabi sagardotegian. Jose Angel Etxeberria eta Xabier Etxeberria izan ziren garaile; Josefa Maizkurrena eta Xabier Etxeberria, bigarrenak; Batista Goikoetxea eta Manuel Ruiz hirugarrenak; eta Jose M^a Santamaria eta Leandro Belaunzaran laugarrenak. Auzoko saskia berriz, Leku-Ona etxeko M^a Karmen Zeberiori tokatu zitzaion, eta Imanol Lekuona Zeberio jaso zuen, bere partez. ■



❖ GAZTE TXOKOA ETA KALE HEZITZAILEAK

Futbol txapelketa eta merendola, urteari agur esateko. Urtea agurtzeko, festa ederra egin zuten Gazte Txokoan ibiltzen diren gazteek, ostiralean. Kale Hezitzaileek eta Gazte Txokoak antolatuta, futbol txapelketa jokatu zuten bi egunetan. Ostiral arratsaldean berriz, sariak jaso, merendola egin, eta argazkiak ikusi zituzten. ■

FUTBOLA - JOXEAN ARABIATORRE I.TXAPELKETA

Infantil mailako 12 neska talde gaur goizean, Zubipen

Goizeko 10:00etatik 13:00era jokatu da gaur, Zubipen, Joxean Arabiatore I.Txapelketa. Gipuzkoako 12 taldek hartuko dute parte.

GAUR, lehenengo aldiz, Joxean Arabiatore I.Txapelketa jokatu da Zubipen. Denera, infantil mailako 12 neska taldek hartuko dute parte, goizeko 10:00etatik 13:00ak bitartean. Babesleak dira: Rioja eta Txili tabernak; Aitor Lasa gaztategia; Bereziartua sagardotegia; eta Alberdi eta Getari harategiak.

Jokoan arituko dira Hernaniko 3 talde, Añorgako 2, Zumaiako 2, Tolosako 2, eta Ordizi, Zarautz eta Urnietako bana. Partiduak 4 taldeko 3 multzotan jokatu dira.

3 sari

Txapelketa honetan 3 sari banatu dira: txapeldunari, azpitxapeldunari, eta Jokalari Onenari Saria.

Omenaldia, Arabiatorreri

Nesken futbola hasi zenetik Joxean Arabiatore izan da nesken taldeko delegatu nagusia. Horegatik, CD Hernanik omenaldi txiki bat egin nahi izan dio, bere izenean txapelketa hau sortuta. ■



Hernaniarrak garaile atzo, Labaien

Memorialean. Urtero bezala, Euskal Ligako jubenilek Labaien Memoriale jokatu zuten atzokoan, Zubipen. Hernanik 22 jokalar atera zituen zelaira, bi taldetan, denei aukera emateko.

«Nahiko gazteak dira, eta oso gustora jokatu zuten. Irabazi egin genuen eta oso pozik gaude», azaldu dio Jordi entrenatzaileak Kronikari. Lehenengo partidua Real Sociedad eta Lengokoak artean izan zen, eta 0 eta 1 irabazi zuten bigarrenak. Bigarren partiduan, Real Sociedad-Hernani, etxekoak irabazi zuten, 0 eta 1.

Azken partiduan ere hernaniarrak irabazi zuten: Hernani 2 - Lengokoak 1. Jokalari onenari saria berriz, Lengokoak taldeko atezainari eman zioten, penalti dezente gelditu baitzuten. ■

ERREMONTEA - BURUZ BURUKO III.MASTERRA

San Miguel, lehenengo finalista

San Miguelek irabazi zion atzo Zeberio IIari, eta Buruz Buruko Masterreko lehenengo finalista bihurtu da horrela. Bihar jakingo da bigarrena.

EGUNGO lau erremontista onenen artean Buruz Buruko III.Masterra jokatu ari da egun hauetan Galarretan.

Atzokoan, 4garren aldiz elkarren kontra jokatu zuten Zeberio IIak eta San Miguelek. Orain arteko partidua guztiak San Miguelek irabazi ditu, eta gauza bera gertatu zen atzokoan; Zeberio II 24-San Miguel 30. Horrela, San Miguel izango da urtarilaren 5ean finala jokatu duen erremontistetako bat.

Bigarren finalista nor den bihar jakingo da. Ezkurak Urriazaren aurka jokatu du. Partidu interesgarria, inondik ere. Izan ere, dagoeneko, Buruz Buruko 11 txapela jantzitakoa baita Ezkurra, eta Urriaza berriz, egungo banakako eta binakako txapelduna baita.

Hasieratik garaile

San Miguelek ondo merezita irabazi zuen atzoko partidua. Hasieratik markagailuan aurretik jarri zen, eta horrela eutsi zion partidua osoan zehar.

Sake ederrak egin zituen eta arriskatu egin zuen. Hortxe, garaipenaren klabea. Lortutako tantoetatik 18, bi paretako jokaldietan lortu zituen San Miguelek.

Bihar, beste finalerdia

Buruz Buruko txapelketa hau 3 partidutan erabakitzen da. Atzokoa izan zen lehenengoa. Bigarrena berriz, bihar jokatu da. Urriaza eta Ezkurra izango dira aurrez aurre.

Biharko irabazlea San Miguelen aurka neurtuko da, urtarilaren 5ean jokatu den finalean. ■



San Miguel.

PALA



Garazi Urdangarinek 2garren postua lortu du, umeen arteko txapelketan.

Eli Pagola hernaniarra eta Maider Mendizabal txapeldunak

Emakumea Pilotari pala txapelketako finala jokatu zen atzo Donostiako Atano IIIan. Pagolak jantzi zuen txapela lehenengo mailan. Bigarren mailako emaitza bihar jakingo da.

EMAKUMEA Pilotari pala txapelketako finala jokatu zen atzo, Donostiako Atano IIIan. Lehenengo mailan jokatu zuten Eli Pagola hernaniarra, Maider Mendizabalekin, Miren Goikoetxea hernaniarraren eta Arozenaren kontra. Pagola eta Mendizabal izan ziren garaile, 30-28. Ordu eta erdiko partidua bizia izan zen, eta bereziki, atzelariak, lan ikusgarria egin zuten.

Bigarren mailako finalean berriz, Eneritz Perez hernaniarrak jokatu zuen Etxegiarekin batean, Garbiñe Tijero hernaniarraren eta Errastiren aurka. Kronikako erre-dakzioa ixterakoan partidua bukatu gabe zegoen oraindik.

Garazi Urdangarin, 2garren Beste txapelketa bat ere jokatu zen atzokoan. Umeen artekoa, hain zuzen. Herriarteko

topaketen bidez, umeen arteko txapelketa antolatu da aurtun, eta bertan parte hartu zuen Garazi Urdangarin hernaniarra.

Atzo arteko partidua guztiak irabazita iritsi zen hernaniarra finalera. Baina aurkari izan zuen zestoarra ere partidua bakar bat galdu gabe iritsi zen finalera, eta Urdangarin 2garren postuarekin konformatu behar izan zuen. Hala ere, primeran ibili da, bere lehenengo txapelketa izan baita hau.

Hernaniarrak, gaurko Napar Txapelketan ere

Euskal Herriko jokalar onenek Napar Txapelketa jokatu dute gaur, 11:00etatik aurrera, Iruñeako Labrit pelotalekuan. Tartean, 3 hernaniar izango dira: Irazustabarrena, Goikoetxea eta Senper. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA

Joxe Ugalde Perurena

Orain egun gubxi hil zen
- Goian bego -

Joxeren familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zireten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.



ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2012ko abenduaren 30ean

ULTRAFONDO PROBA SOLIDARIOA - ANJEL OLARAN ETA XABIER SALILLAS:

«Bildutako dirua haurrentzako proiektuetarako izango da»

Urtarrilaren 21etik 27ra proba berezi bat egingo da Hernanin. Xabier Salillas korrikalari hernaniarrak ultrafondo proba solidarioa egingo du. 7 egunetan, guztira, 700km egitea da bere asmoa, atletismo pistan bueltaka. Hernani Wukrorekin Gobernu Kanpoko Erakundearekin harremanetan jarri da, eta herritar guztiak Salillasekin parte hartzera gonbidatu dituzte. Bildutako dirua Wukrora bidaltzea da asmoa. Anjel Olanarek eskertu egin dio Salillasi ekin-tza, eta «asko hunkitu» duela azaldu dio.



Anjel Olanar eta Xabier Salillasek elkar ezagutu berri dute, Wukro laguntzeko proiektu honen harira.

ANJEL Olanar Aita Zuria Wukron (Etiopia) bizi da. Baina tarteka Euskal Herrira etortzen da, hango berri eman eta laguntza gehiago lortzeko. Azken hiru hilabete hauek hemen pasa ditu, eta berriro ere Wukrora itzuli aurretik, Xabier Salillas ezagutzeko aukera izan du.

«Askok hunkitu nau Wukrorako dirua biltzeko proposatu duen ekintzak», onartu dio Olanarek. «Kirolariak ote dira, gaur egungo gizarteko mistikoak? Kirolak duen balio fisikoa gainditu eta beste balio bat eman dio; korrika ari den bitartean, bakarka pentsatzeko denbora du, eta medalla irabaztean pentsatu beharrean ekintza solidario baten ideia sortzen zaio. Egia esan, krisi garai honetan eta azken hiru hilabete hauetan entzun

dudan proposamenik humanoena da hau», azaldu du.

Hala ere, hau ez da Hernanik Wukro laguntzeko egiten duen lehenengo gauza. Jende asko joan da bertara, Gobernu Kanpoko Erakundea sortu da...

Egia da. Jende asko joan da Wukrora Hernanitik, eta babes haundia ematen digute. Gainera, behin hara joanda, beste goxotasun batekin laguntzen digute; barrutik, eta ez kanpotik. Hernani Wukrorekin Gobernu Kanpoko Erakundea ere horrela sortu da.

Wukrora bueltan zoaz orain. Han ere ospatzen dituzue Gabonak?

Familiarteko giroan eta modu kuttunagoan bizitzen dira han Gabonak. Nabaritu egiten da Jesus jaio dela. Oraindik ezerk ez du hori ordezkatu.

Hemen berriz, jaiotza aldatu egin da, adierazpen zibila edo laikoa nagusitu da: opariak, bazkari eta afariak...

Hasieran, eguzkia adoratzeko zen, eguna luzatzen hasteko eguzkiak iluna gainditu zuela ospatzeko. Festa hau kristautu egin zen. Azken 10-20 urteetan zentzu primitibo eta paganoa berreskuratu du. Baina lehen eguzkia bazen Jainkoa, orain kontsumismoa eta dirua dira, eta Bankuetan ospatzen da. Boteredunek ospatzen dute, baita botere erlijiosoa dutenek ere, batzuetan.

Atzera egin duen ospakizuna da; izpiritua galdu du. Eta Jainko-diruak boteretsuei soilik ematen die jana, behar-tsuenei kenduta.

Wukron ere nabaritu da krisia?

Han ez dago krisirik, ez baita

lortu oraindik, ongizate gizarterik. Krisira iristeko, anti-krisia behar da.

Kaos egoera zegoen hemen, eta eztanda egin duenean sortu da krisia, boom ekonomikoaren ondorioz. Bazirudien hemen dena armonian zegoela; eduki eta jabe izan.

Wukron ez da horrelakorik gertatu, ez da ezer galdu, ez baitzegoen ezer. Baina atzera egin dugu pixka bat lorpen batzuetan. Janaria Bolsan kotizatzen denetik, oinarritzko elikagaien prezioak gora egin du eta familietako ekonomia eze-gonkortu da.

Laguntzak gutxitu dira?

Babes ekonomiko gutxiago iristen da; ez laguntza gutxiago. Laguntza kontzeptua buruan sartu digute. Baina zure beharrak asetzeko adina

baduzu, sobratzen zaizuna ematea ez da laguntzea; beste-ei dagokiena itzultzea baizik. Laguntzea da, zuretzako beharrezkoa denaren zati bat ematea zu baino okerrago dagoenari. Gehiago baduzu, ez daukan horri dagokiona da daukazuna.

Erakunde ofizialek murrizketak egin dituzte; katastroferik gertatzen ez bada, ez dute dirurik ematen. 70.000 pertsona hiltzen dira urtero gosearen ondorioz, baina hau ez da katastrofea! Politikoak eta gizartea itsututa daude, eta jende hau gobernatzen aritea delirio hutsa da. Tristeena da besteei dagokien diru apur hori murrizten dutela. Gero, 'Gabon zoriontsuak opa' dizkigutela esaten dute; hitz hutsak dira. Ez dute ezer egiten korruptzioaren kontra eta

lapurtzen dutenei amnistia fiskala ematen diete!

Wukron ere nabari da korrupzioa?

Etiopian, nazioarteko politikari dagokionean, ez dago maila horretako korrupzioarik, gizarte zibilak kontrolatzen baitu. Lehen ministroari eta familia osoari auditoria egiten diete, zein ondasun dituzten jakiteko. Gastu haundiegia eginez gero, edonor konturatu litzake, zein soldata duten datu jakina baita, eta ezin dute asko eduki.

Afrikan badago korrupzioa, baina ez da harrizkoa. Politiko afrikarrak Europako enereduari jarraituta sortu ziren, eta independetzia lortuta ere, hemengo eragin haundia jasotzen dute. Gainera, ejertzitoak eta poliziak ere, hemengo eraginaren menpe daude. Bada ez bada, Afrikan ez ziren utzi unibertsitarioak edo tekniko akademikoak.

Hemen gertatu dena okerragoa da! Eruopako Bankuek maileguak eman dituzte, Gobernuen bermearekin. Ondoren, gestio txarra egin dute, eta azkenean, jende xumea da ordaindu behar duena. Hirugarren munduko maila da, hemengoa ere! Arazoaren erdian egonda ere, 'aterako gara' diotenei esango nieke ezetz. Duela 2 urte mileurista izatea txarra zen, eta orain, etorkizuna ziurtatuta edukitzea da. Bi urteren buruan lortu da ideia aldaketa!

Krisiak krisi, zein da Wukron dituzun proiektuen egungo egoera?

Proiektu guztiak bideratuta daude elikagai nahikoa ziurtatzera. Krisirik ez dago, ez

ANJEL OLARAN:

«Wukron ez dago krisirik, ez baita lortu oraindik, ongizate gizarterik».

«Laguntza kontzeptua buruan sartu digute. Baina zure beharrak asetzeko adina baduzu, sobratzen zaizuna ematea ez da laguntzea; besteei dagokiena itzultzea baizik».

«Krisi garai honetan, azken 3 hilabete hauetan entzun dudun proposamenik humanoena da hau».

delako nahikoa elikagai ziurtatu oraindik.

Janaria izateko bitartekoak lantzen ari gara; batetik, ura. Uztailean eta abuztuan egiten du euria, eta teknika xume batzuekin saiateren gara ur hori gure baratzetan gera dadin, 10 hilabetetan zehar ureztatu ahal izateko, eta horrela, urtean 2 edo 3 uzta lortzeko. Oinarritzko eskubideak bermatzen saiatzen ari gara.

Bestalde, egiten duguna da agureak eta umezurtzak zaindu; 6 hilabete eta 5 urte arteko haurrak elikatu; babesik ez duten emakumei mikrokredituak eman; natura berreskuratuta... Zer ez guke egingo, AHTaren edo autopista baten kilometro bat eraikitzeak aurrekontua bagenu! Orduan, mileuristak izango ginateke! ||

ULTRAFONDO PROBA SOLIDARIOA - XABIER SALILLAS:

«Elkartzeko eta Wukro nahiz ultrafondo probak gehiago ezagutzeko balioko du»

XABIER SALILLAS:

«Helburua bikoitza da.

Ultrafondo ezagutarazi eta bultzatzea batetik, eta Wukrorekiko solidaritatea haunditzea, bestetik».

«Korrika egiteak zoriontsu egiten nau. Zergatik ez saiatu beste batzuk zoriontsu egiten ni zoriontsu egiten nauen horrekin?».

ULTRAFONDO probak egiten ibiltzen da Xabier Salillas hernaniarra. Egin duen azkena, Monakoko ultrafondo proba izan da; azaroan egin zuen. Ordurako buruan zuen Wukro laguntzeko ideia, eta 8 egun korrika pasa ondoren, ideari forma eman dio.

Urtarrilaren 21etik 27ra, eguneko 100km egiten saiatuko da Hernaniko atletismo pistan; 700km, guztira. Herriko elkarte, talde eta norbanakoak berarekin korri egitera eta parte hartzera animatu nahi ditu, Wukroa bidaltzeko dirua biltzeko.

Bi helburu dituen proba

«Ultrafondoan aritzen den jendea ezagutzen dut, antzeko gauzak egin dituen. Laguntza eskatzen dute horrelakoetan, eta joan egiten zara. Nik Hernani Wukroekin Gobernu Kanpoko Erakundea ezagutzen nuen, eta zerbait egin nezakeela pentsatu nuen», azaldu dio Salillasek Kronikari. «Korrika egiteak zoriontsu egiten nau. Zergatik ez saiatu beste batzuk zoriontsu egiten ni zoriontsu egiten nauen horrekin?».

Monakoko proba egiten ari zela ideari forma eman ziola azaltzen du Salillasek,

«ordu asko pasatzen baitira korrika, eta pentsatzeko denbora izaten da».

Horrela, Hernanin egingo duen proba honekin bi helburu lortu nahi ditu: «jendea elkartzeko eta Wukro nahiz ultrafondo probak gehiago ezagutzeko balioko du. Izan ere, astebete bertan pasata, jendea etorri egiten da; elkartu eta gaiari buruz hitz egiten du».

Monakoko printzesaren babesa

Monakoko proba egiten ari zela ideari forma eman ziola

azaltzen du Salillasek. «Hara iritsi nintzenean, batekin eta bestearekin hizketan aritu nintzen, nuen ideiarekin inguruan, eta nonbait, Monakoko printzesaren belarrietara ere iritsi zen kontua».

Printzesak berak eman zizkien sariak podiumera igotakoei, tartean, Salillas. «Monarkiako parte den nonbait gerturatu eta ideia babesten duela adierazteak harritu egin ninduen; animoa eta proiektuari indarrez ekiteko behar nuen txispa eman zizkidan horrek».

Parte hartzeko deia

Astebetez atletismo pistan korrika ariko da Salillas. Hernani Wukroekin-en asmoa da jendea Salillasekin batera korrika egitera animatzea: herriko elkarte eta taldeak, ikastetxeetako ikasleak, kirol taldeak, bakarka animatzen den guztia...

Kutxa bat jarriko da bertan, nahi duenak dirua emateko. Bestalde, asteburuan eta azkeneko egunean festa berezia antolatuko dute.

«Bildutako diru guztia haurrentzako proiektuetarako izango da, Gobernu Kanpoko Erakundearen bidez beste proiektuetarako laguntzak lortzen baitira». ||

ZUNTZA DA AURTENGO GABONETAKO IZARRA

BENETAKO
20 MEGA
+ PREMIUM TBa
+ finko eta mugikorretarako deiak

Hilean
35,8€
soilik
ordainduta, urtebetez.

Alta eman
urtarrilaren **5a**
baino lehen

Logikaline
943 31 86 11

euskaltel Banatzaile ofiziala

2013/01/05a baino lehen Euskaltelen Zuntz Optikoan alta ematen dutenentzat balioko du sustapen honek: %50eko deskontua 20 Meko DUCaren eta Premium Telebistaren Hileko kuota, eta %48,7ko deskontua linearen kuota, aktibatzen den egunetik hasi eta 12 hilabetez aplikatzekoak. Zuntzean eta Bonaia Zabalean 12 hilabetez irauteko konpromisoa. Bonaia aurrez esortzeagatik kargua: 15 € produktu eta bere gabeko hilabete bakoitzeko. Bonaia hartzen dituzten estatuko finkoetarako deiak (4.000 minutu) eta estatuko mugikorretarako deiak (60 minutu). Zuntz Optikoaren instalazio berriztatzeak soilik da oinokoa alta. Deskontuak ez dago sarritan. Premium Zerbitzu Teknikoa duen lehen 3 hilabeteetan, laguntza teknikari bakoitzari, berriz, 3,5 € hileko. BEZ ez dago sartuta. Muga 125 die.

MILA ESKER PARTE HARTZEAGATIK

1go
SASKIA **3.776**

Tripontzi 2 lagunentzako afaria
Leokadisti 2 liburua
Valen Umeentzako txandak bat
Ezkerro Frutak Fruta saski bat
Hoki Nesken pijama
Jaione 2kg langostino gordinak
Oihala Fanelazko maindireak
Txilibita Ardoa, 3ko lotea (kriantza)
Aitor Peña 5 litro olio
Ibai mendi Makilak
Arregi Aulki bat
Ezkati Korte eta tintea
Distira Belarritakoak
H.Kronika Argia aldizkariako harpidetza bat
H.Kronika Ume jolas sorta
Nekane Esmaltado permanente bat

2.
SASKIA **4.152**

Alkorta Paleta iberikoa
Urbietakopiak Bulego materiala
Feli Manta bat
Aitor Peña Detergente pakete haundia
Nekane Kutis garbiketa bat
Irigoyen Etxeko zapatilak (2 pare)
Aralar Viña Real ardo kaja (kriantza)
Mariscos Hernani Marisko saskia
Adarraga Turroi sorta bat
Txilibita Ardoa, 3ko lotea (kriantza)
H.Kronika Ume jolas sorta
H.Kronika Liburua: Eritmoa, kazetariaren batuta
Marife Arraindegia Xapoa
Kistiñe Gure kafe onenaren paketea
Distira Fularra

3-
SASKIA **2.417**

Kaixo maleta bat
Hernani Bidaiak
HOTEL EL MUELLE **** (Suances)
Gau bateko egonaldia bi pertsonentzat
Mariskada + gosaria + spa

4.
SASKIA **512**

Joxe Mari Kriantza ardo kaja, 6 koparekin
Txilibita ardoa, 3ko lotea (Olmaza autor kriantza)
Distira Poltsa bat
H. Kronika Argiako harpidetza
H. Kronika Ume jolas sorta
Marife Arraindegia 2 kg. Ganba
Kistiñe 2 pertsonentzat gosaria
Feli Manta bat
Torres Prismatikoak
Balantxa Iratzargailua
Kera Jertse bat
Nekane Estetika Kutis garbiketa
Urrats Nordika etxeko zapatillak
Urumea burdindegia 6 whiskey baso
Antziola okindegia Errege roskea

5-
SASKIA **1.759**

Onddi Viña Real ardo kaja
Amegar Kaletera bat
Kaixo Maleta bat
Marife Arraindegia Legatza
Feli Manta bat
Antziola okindegia Errege roskea
Kistiñe Infusio pakete bat
Telemar Panasonic telefono inalambrikoa
Urumea burdindegia 6 katiluko kafe jokua
Jaione Iberiko lotea
Arrobi Ostatuak Afaria bi pertsonentzat
Hernaniko Kronika Ume jolas sorta
Hernaniko Kronika Liburua: Eritmoa, kazetariaren batuta
Zintzarri taberna 6 botila ardo (reserba)
Nekane Esmaltado permanente bat

**Urtarrilak 9a da errifa irabazleak
Kronikan entregatzeko azken
eguna.**

**Egun horretan, saritu gabeko
saskiak berriro zozketatuko dira.**

Gorde zuen errifak!



URTARRILEKO KULTUR AGENDA



Urtero bezala, Txotx Egunean sagardoa probatzeko aukera izango dute herritarrek Plazan.

Errege Magoen bisita eta txotx garaiaren hasiera, urtarrileko ekintza nagusiak

Ohi bezala, Errege Magoen kabalgata urtarrilaren 5ean izango da. Txotx denboraldiari berriz, urtarrilaren 13an ekingo zaio Txotx Egunarekin. Horrez gain, ostiralean, Bertso jaialdia izango da, Bertsolata bukatzeko.

URTE berria hasteko bi egun besterik ez dira geratzen eta urtarrilean ohikoak diren bi ekintza izango dira aurrean: Errege Magoen kabalgata eta txotx denboraldiaren hasiera. Errege Magoak urtarrilaren 5ean ibiliko dira herriko kaleak girotzen eta ondoren opariren bat edo beste ere banatuko dute. Txotx denboraldiari berriz, urtarrilaren 13an ekingo zaio Hernanin. Horretarako, Txotx Eguna antolatu du Udalak, urtero bezala. Herritarrek aurtengo sagardoa probatzeko aukera izango dute Plazan.

Bertso jaialdi ederra, 6 bertsolariren eskutik

Bada azken urteetan ohitura bihurtu den beste ekitaldi bat: Bertso jaialdia. Horrek ere ez du hutsik egingo aurrean. Jaialdia urtarrilaren 4an, hau da, ostiralean izango da. Bertsolataren azken emanaldia izango da. Arratsaldeko 19:30etan Biterin saio bikaina eskaintzeko prest igoko dira oholtzara, Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Odei Barroso,

Iñaki Zelaia, Iker Zubeldia eta Eli Pagola. Amaia Otxotorena izango da gaijartzailea.

Marsel Magoaren emanaldia
Eskolara bueltatu aurretik, Gabonetako oporraldiaz gozatzen jarraitzeko aukera ere izango dute haurrek. Izan ere, ostegunean Marsel Magoak emanaldia eskainiko du Biterin, 17:00etatik aurrera. 5 urtetik gorako haurrentzat izango da.

Ikastaroak, erakusketak, erromeria...

Hilabetero-hilabetero antolatutako ohi diren ekintzekin gozatzeko aukera ere izango da urtarrilean. Adibidez, Gazte Txokoak ekintza ugari antolatu ditu eta ostiralean Pio Barojara joango dira eskalatzera.

Horrez gain, ikastaro ezberdinak izango dira eta baita erakusketak ere. Kalek Kale Kantari eta erromeria ere antolatu dituzte herria girotzeko. Eta hilabeteko azken larunbatean Bigarren eskuko azoka izango da. II

URTARRILEKO KULTUR AGENDA

Urtarrilak 2:

- Gazte Txokoa: Mahai futbol txapelketa.

Urtarrilak 3:

- Antzerkia haurrentzat: Marsel Magoa. Adina: 5 urtetik gorakoentzat. Hizkuntza: euskera. Biteri kultur etxean, 17:00etan.

Urtarrilak 4:

- Bertso jaialdia: Biteri kultur etxean, 19:30etan.
- Gazte Txokoa: Pio Barojara irteera eskalatzera. 14-16 urte bitarteko gazteentzat. Goizeko 09:50etan, Atsegindegian. Antolatzaileak: Hernaniko Kale Hezitzaileak eta Gazte Txokoa.

Urtarrilak 5:

- Errege kabalgata, 18:00etan.

Urtarrilak 8:

- Bisuteria-abalorioak ikastaroen hasiera: Biteri kultur etxean, 19:00etatik 20:30etara.
- Erakusketa: Maketak. Urtarrilaren 22ra arte egongo da ikusgai. Egilea: Serafin Hernandez. Biteri kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Urtarrilak 10:

- Bisuteria-abalorioak ikastaroen hasiera: Biteri kultur etxean, 19:00etatik 20:30etara.

Urtarrilak 12:

- Kalek Kale Kantari: Plaza Berritik abiatuta, 12:00etan.
- Erromeria: San Joan Konpartsak antolatuta, 18:30etatik 20:30etara.
- Gazte Txokoa: Wii estreinaldia.

Urtarrilak 13:

- Txotx Eguna.

Urtarrilak 14-25:

- Sendabelarrak ikastaroan izena emateko epea. Hizkuntza: euskera. Biteri kultur etxean izango da ikastaroa.

Urtarrilak 15:

- Literatur Solasaldiak: Jean Rhysen 'Sargazo itsaso zabala' liburua. Dinamizatzailea: Ane Mayo (euskera). Udal Liburutegian, 19:30etan.

Urtarrilak 21:

- Zilegi Eskola: Argazkilaritza ikastaroa, AEK antolatuta. Hizkuntza: euskera. AEK euskaltegian, 19:00etan.

Urtarrilak 25:

- Gazte Txokoa: pizzak egiteko tailerra.

Urtarrilak 26:

- Bigarren eskuko azoka: Atsegindegi plazan, 10:30etatik 13:30etara.

Urtarrilak 27:

- Gazte Txokoa: Kutxa Espaziora irteera.

Urtarrilak 28:

- Zilegi Eskola: Argazkilaritza ikastaroa, AEK antolatuta. Hizkuntza: euskera. AEK euskaltegian, 19:00etan.

Urtarrilak 29:

- Erakusketa: argazkiak. Otsailaren 12ra arte egongo da ikusgai. Egilea: Marisol Yaben. Biteri kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Urtarrilak 30:

- Gazte Txokoa: Kandelak egiteko tailerra.

Urtarrilak 31:

- Gazte Txokoa: Kandelak egiteko tailerra.

Otsailak 4:

- Zilegi Eskola: Argazkilaritza ikastaroa, AEK antolatuta. Hizkuntza: euskera. AEK euskaltegian, 19:00etan.

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hemari: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
● FARMAZIAK ● Egumez: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● Gauez: **Etxebeste** Elkano 9 - 943 552087

ALDABE FARMAZIA

Antziolako Aldabe farmazia gauero zabalik, urgentziei erantzuteko

Etxebeste farmaziari erreleboa hartuta, Aldabe farmaziak egingo ditu datorren urtean gaueko guardia guztiak, 22:00etatik 09:00etara.

2013 urtea hastearekin batera, Aldabe farmaziak erreleboa hartuko dio Etxebeste farmaziari eta gaueko guardia guztiak berak egingo ditu. Aldabe farmazia Antziola auzoan dago, Correa farmazia zenaren ordezkoa da. Garikoitz Aldabe eta Estibalitz Arantzamendi dira oraingo nagusiak.

Dena dela, gaueko zerbitzua ez dute beraiek emango, hiru farmaziariz osatutako talde tekniko batek baizik. Orain arteko farmaziarik berdinak izango dira: Mar Santamaria, Marian Arbaizu eta Yolanda Caro. Gaueko zerbitzua 22:00etatik 09:00etara izaten da, larrialdietarako.

Eguneko guardia zerbitzuak ere izaten dira, farmaziak itxita dauden orduetan: 13:30-16:00 eta 19:30-22:00. Bertan, Hernaniko 7 farmaziak txandakatzeaz gain, Urnietako Tango eta Odriozola, eta Astigarragako Agudok ere parte hartzen dute.

«Lehen adinekoekin egiten genuen lan, orain gazteekin» Aldabe eta Arantzamendi ekainetik ari dira Antzian lanean. Correak, jubilazioa tarteko, farmazia utzi zuen eta eurek hartu zuten. 2002an karrera bukatu zutenetik dabilta farmaziarik lanetan biak, baina orain arte beste entzat egin dute lan eta orain eurentzat ari dira. Hernanin oso gustora daudela azaldu diote Kronikari: «Aieten bizi gara eta alde horretatik, gertu geratzen zaigu. Horrez gain,



Estibalitz Arantzamendi eta Garikoitz Aldabe.

Garikoitz Aldabek eta Estibalitz Arantzamendik ekainean zabaldu zuten Aldabe farmazia, Correa zenaren lekuan, eta Hernanin oso gustora daudela azaldu dute.

jendea oso jatorra da. Gainera, orain arte adinekoekin egin izan dugu lan, erretzekin, batez ere, eta orain gazteekin. Txupeteak, esnea... saltzen ditugu».

Farmazian ez dute obrarik egin, baina euren gustora antolatu dute. Apaindu ere egin dute.

Gabonetako marrazki lehiaketa

Aldabe farmazian Gabonetako marrazki lehiaketa ere antolatu dute. Ostegunean banatu zituzten sariak. 2-5 urte bitarteko artean honakoak izan dira lehenengo hirurak: Maialen Palacios, Leire Lorenzo eta Aiane Zubeldia. Eta 6-12 urte bitartekoetan, honakoak: Paola Lorenzo, Haizea Cano eta Maddi Santana. Parte hartzaile guztientzat izan zen sariren bat edo beste. II

ALDABE FARMAZIA

Perkaiztegi 8, Antziola.
943 33 60 22.

EREÑOTZU - OLAK AUZO ELKARTEA

Bi ikastaro urtarrian: informatika eta umeentzako sormena

Bi kasuetan izen ematea urtarriaren 4an bukatuko da. Informatikarako izena eman dutenen artean bilera egingo da egun horretan, 18:00etan auzo etxean.

EREÑOTZUKO Olak auzo elkarteak bi ikastaro berri jarriko ditu martxan urtarrian. Alde batetik, informatika ikastaroa izango da; eta bestetik, sormen tailerra 6-10 urte bitarteko haurrentzat. Interesa dutenez, izena eman behar dute urtarriaren 4a baino lehen. Ikastaroak, urtarriaren 7ko aste horretan hasiko dira.

Informatika ikastaroan, lau aukera

Informatika ikastaroaren barruan, lau aukera izango dira: Windows eta internet, oinarritzkoa (20 ordu-50 euro); Argazkiekin DVDak egin, Moviemaker-en bidez (16 ordu-40 euro); Openoffice (30 ordu-80 euro); eta GIMP programa irudiak lantzeko, Photoshopen antzekoa (20 ordu-50 euro).

Egunei dagokienez, goizez asteartetan dago aukera eta arratsalde, astelehenetik ostegunera, 17:30etatik aurrera. Orduak aurrerago zehaztuko dira, jende kopuruaren arabera.

Gainera, ordutegia adosteko, izena eman dutenen artean bilera egingo da urtarriaren 4an 18:00etan, auzo etxean.

Sormen tailerrean, arte plastikoak, gorputz adierazpena... Sormen tailerra 6-10 urte bitarteko haurrentzat izango

da eta bertan honakoa landuko dute: arte plastikoak, gorputz adierazpena, ikus-entzunezko teknikak, iragarki absurduak...

Jakinarazi dutenez, erabiliko dituzten materialak birziklatuak izango dira ahal den neurrian. Metodologia, berriz, guztiz parte hartzailea izango dela azpimarratu dute. «Errealitatea hautemateko begirada berri bat» landuko dute.

Ikastaroa, urtarrietik maiatza bitartean izango da, larunbat goizetan.

Informatikako lau ikastaroak:

Windows eta internet;
argazkiekin DVDak egin
(Moviemaker); Openoffice;
eta GIMP (irudiak,
Photoshopen antzekoa).

Izena emateko, hiru bide

Izen ematea hiru modutan egin daiteke: emailaz, olakae@gmail.com; postaz, auzo etxeko buzoian utzita; edo telefonoz, 667 664 424 (mezua utzi).

Izena ematerakoan, honako datuak jarri behar dira: izena eta abizena, telefono zenbakia eta zein ikastarotan ematen den izena. II

IRAGARKI MERKEAK

Atikoa salgai Kale Nagusian. 176.000 €. Gazteentzat aproposa. 48 m2 erabilgarri. Bizitzera sartzeko.

Deitu: 652 740 831. Posta: lursaski@gmail.com

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai...

Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Irñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Amegar
ETXE TRESNAK
Zatoz!
eta aurkitu behar duzuna

Hotzgailluak
Izotzgailluak
Labeak
Garbigailuak

TELEBISTETAN
AUKERA ZABALA

Punta-puntako markak

Txirrita Kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 faxa: 943 55 16 03

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06